

AGINTALDI PLANA 2023-2027

JARRAIPEN-TXOSTENA



Basauriar hori:

2023-2027 legealdi hasieran, Basauriko Udaleko Gobernu Taldean Agintaldi Plana egin genuen, eta lau urte hauetan zehar lantzeko konpromisoa hartutako lehentasunezko jarduketak bildu genituen bertan.

Dokumentuak, guztira, garatzeko 79 jarduketa jasotzen ditu, 6 jarduketa-ardatzetan antolatuta eta merezi dugun Basauri hori eraikitzea xede. Bada, 2026ko urtarrilaren 1erako, Planerako hamar konpromisotik bederatzi bete ditugu edo betetze bidean daude.

Betetze-maila oso altua da hori, % 96koa, islatzen duena Gobernu Taldean buru-belarri ari garela lanean, basauriarrekin hartutako konpromisoak betetzeko. Gure kudeaketa erabat bideratuta dago herritarren eskaerei erantzutera; sozialki aurreratua den Basauri bat sortzera, alegia, non herritarrak zaindu eta haien ongizatea bermatuko baitugu. Hala erakusten du Planaren betetze-maila altuak.

Hemendik eta legealdi-amaierara arte, Basauri bizitzeko leku gero eta hobea izateko planifikatutako ekintzak apurka-apurka gauzatzen joateko konpromisoari eusten diogu.

Asier Iragorri Basaguren
Basauriko alkatea


Asier Iragorri Basaguren
Basauriko alkatea



Planean aurreikusitako jardueren betetze-maila, 2026ko urtarrilean

Basauriko 2023-2027 aldirako Agintaldi Planean, lehentasunez garatu beharreko 79 jarduera bildu dira, 6 jarduera-ardatzetan.

2026ko urtarrilaren 1era arte, 5 jarduera burutu dira, hau da, aurreikusitako guztien % 6, eta 71 jarduera (guztizkoaren % 90) gauzatzen ari dira. 3 jarduera (guztizkoaren % 4) gauzatu gabe daude oraindik, eta, oraingoz, ez da aurreikusitako jarduera bat bera ere baztertu:



1. ardatza - Basauri SOZIALA

JARDUERAK

- 1.1.- Gizarte-bazterkeriako eta ahultasun ekonomikoko egoeren aurkako borroka.
- 1.2.- “Basauri adinekoekin atsegina”.
- 1.3.- Adinekoentzako gizarte-zentro berria.
- 1.4.- Nahi ez den bakardadearen aurkako borroka.
- 1.5.- Laguntza behar dutenei laguntzea.
- 1.6.- Sarratuko bizikidetzta-unitatearen eta eguneko arreta-zentroaren proiektua garatzea.
- 1.7.- Arrakala digitala ezabatzea.
- 1.8.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen erabateko integrazioa.
- 1.9.- Bizikidetzta eta aniztasuna sustatzea.
- 1.10.- Berdintasuna txertatzea Basauriko gizarte-erakundearen agendan.
- 1.11.- Basauriko emakumeak ahalduntzea.
- 1.12.- Berdintasuna sustatzea gizarte-eremu guztietan.
- 1.13.- Basauriko Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko II. Plana (2023-2026).
- 1.14.- Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazioa areagotzea.
- 1.15.- Indarkeria matxistaren biktimei arreta juridikoa eta psikologikoa ematea.
- 1.16.- Udalean berdintasuna sustatzea.
- 1.17.- Adikzioei aurrea hartzea.
- 1.18.- “Guraso Eskola” programa berreskuratzea.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.1.- Gizarte-bazterkeriako eta ahultasun ekonomikoko egoeren aurkako borroka. Gizarte-bazterkeriako egoeran daudenentzako gizarte-baliabideak garatzea. Ahultasun ekonomikoko egoeran daudenei laguntzak jasotzeko aukera bermatzea.</p>	GAUZATZEN	<p>Basauriko Udalak aparteko diru-ekarpina egiten du Eusko Jaurlaritzak ematen dituen gizarte larrialdietarako laguntzen (GLL) aurrekontua osatzeko, eta aldizkakoak ez diren udal laguntzak ematen dizkie gastu zehatz bereziei aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten Basauriko herritarrei, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko.</p> <p>2023ko ekainaz geroztik, aldizkakoak ez diren 52 udal laguntza eman dira, guztira 66.130 euro izanik, eta Eusko Jaurlaritzak Basauriko GLLak kudeatzeko jartzen duen zenbatekoa osatzeko 375.000 euro bideratu dira; zenbateko bi horiek Udalaren diru-kutxatik atera dira.</p>
<p>1.2.- “Basauri adinekoekin atsegina”. “Basauri adinekoekin atsegina” programako ekintzak garatzen jarraitzea, zahartze osasungarriagoa eta aktiboagoa bultzatzeko, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko eta haien parte-hartze soziala eta herritarra ahalbidetzeko.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Talde eragilea sendotu eta handitu da - Udal arloekin egindako lanaren ebaluazioa eta jarraipena egin dira. Talde teknikoak informazioa lortu du ekintzak nola egin diren jakiteko, eta talde eragileak lana aztertu du - Ekintza berriak definitu eta proposatzea, gaiaren arabera antolatuta - Talde eragilearen antolaketa eta bilakaera: <ul style="list-style-type: none"> • Hiri Atseginen arlo bakoitzean foku-taldeein egin beharreko galdera nagusiak identifikatu dira, ekintza-plana berrikusi ondoren



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.2.- “Basauri adinekoekin atsegina”. "Basauri adinekoekin atsegina" programan jasotako ekintzak garatzen jarraitzea, zahartze osasungarriagoa eta aktiboagoa bultzatzeko, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko eta haien parte-hartze soziala eta herritarra ahalbidetzeko.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> • Foku-taldeen bi saio dinamizatu dira • Arlo bakoitzean jasotako guztia eta egindako ekarpen guztiak titularretan laburbildu da • Basauriko adinekoen beharrak identifikatu dira, foku-taldeen egindako ekarpenekin hasi eta garatu beharreko ideia eta ekintzekin amaitu <p>- Talde eragilea trebatu da, parte-hartze bidezko aurrekontuei dagokienez</p> <p>- Herriko adinekoen elkarteekin loturak finkatu dira</p> <p>- Adeitasunaren beste diagnostiko bat egiteko lanean</p>
<p>1.3.- Adinekoentzako gizarte-zentro berria. Arizko eta Urbiko adinekoei gertuagoko zerbitzua emango dien gizarte-zentro bat atontzea.</p>	GAUZATZEN	<p>Zentroa kokatzeko lokala erosten 350.000 euro inbertitu ostean, obrak egin dira : leihoak aldatzen, dinamizatzeko materiala eta altzariak erosten, eta espazioak egokitzen</p> <p>Aurreikuspenen arabera, 2026ko apirilean jarriko da martxan</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.4.- Nahi ez den bakardadearen aurkako borroka. Nahi ez den bakardadea bizi duten adinekoen kasuak identifika daitezzen bultzatzea eta haien interakzio soziala ahalbidetzeko tresna berriak martxan jartzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zahartze aktiboari buruzko ikastaroak: Basauriko 1.000 adinekok baino gehiagok hartzen dute parte programa horretan; programaren bitartez, osasun fisiko, mental eta sozialaren prebentzioa eta sustapena lantzen dituzte, bizitza kultural eta sozialean parte har dezaten sustatzen da prestakuntzako, hezkuntzako, kulturako eta olgetarako programen bidez, eta harreman sozialak sustatzen dituzte. 58 taldetan banatzen dira, eta Basauriko auzoetan egiten diren jardueretan parte hartzen dute. - Zahar-etxeak dinamizatzeko programa: 10 lagun kontratatu dira, dinamizatzaile-lanak egiteko. - Nahi ez den bakardadea lantzeko programa, Zahartze Aktiboaren eta Zahar Etxeak Dinamizatzeko programen osagarri: -Bisita kultural gidatuak Bizkaiko museoetara (Itsas Museum, Guggenheim Museoa eta Arte Ederren Museoa), Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan; harrera ona eta parte-hartze handia dute bisitaldi horiek Basauriko adinekoen artean. -Zahar-etxeak dinamizatzeko programaren bidez, “proba-pilotu” gisa, elikadura osasungarriari buruzko tailer bat jarri nahi dute martxan, elikadura-ohitura osasungarriak sortzeko; eta, aitzakia horrekin, isolatuta eta bakarrik dauden pertsonak elkartu nahi dira, sozializatzeko giro atsegina sortuta.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.5.- Laguntza behar duten pertsonen laguntzea. Mendekotasuna duten pertsonen etxean jarrai dezaten erraztea, hori ahalbidetzeko zerbitzuak eta baliabideak handituz.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) emateko ordu gehiago, laguntza jasotzen dutenen mendekotasun-mailan oinarrituta. ELZren egungo erabiltzaileak: 241 pertsona, batik bat mendekotasun-arriskuan daudenak. - Foru Aldundiaren EtxeTIC zerbitzua ezarri eta abiarazi dute; zerbitzu hori gure herrian mendekotasun-egoeran daudenei zuzenduta dago, eta Basauriko Udalaren laguntza du. - Mendekotasunarekin lotutako zahartze aktiboko jarduerak gehiago. Basauriko auzo guztietan antzeko eskaintza dute jarduerari dagokienez, astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldean. <p><u>Urteko jarduerak</u></p> <p>Zahartze aktiboko ikastaroak Gorputz-adierazpeneko 8 talde, erlaxazioko 12 talde, adinekoentzako gimnasiako 7 talde, areto-dantzetako 1 talde, yogako 10, marrazketa eta pinturako 9, zur-lanketako 4 eta dekorazio-arteetako 1</p> <p>Mendekotasunaren prebentziorako ikastaroak Jarduerak fisiko egokituko 3 talde (mugikortasun-arazo handiak dituztenentzat) eta estimulazio kognitiboko beste 3 (narriadura kognitibo arinak izaten hasten direnentzat egokitua)</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.5.- Laguntza behar duten pertsonen laguntzea. Mendekotasuna duten pertsonen etxean jarrai dezaten erraztea, hori ahalbidetzeko zerbitzuak eta baliabideak handituz.</p>	GAUZATZEN	<p>Etxeetako dinamizazio-programa Ezaugarri fisiko eta psikiko mugatuagoak dituztelako talde-jardueretan parte hartzen ez duten eta ia soilik zahar-etxera joaten direnei zuzenduta dago. Astelehenetik asteazkenera bitarte egiten dituzte jarduerak, helburu izanik denbora libre betetzea, beste talde batzuetan gizarteratzeko arazoak dituztenei arreta ematea eta, batez ere, nahi gabeko bakardadearen arazoak hautematea.</p> <p>- Mendekotasunaren 1. maila dutenei zuzendutako etxebizitza komunitarioen proiektua eta eguneko arreta-zerbitzua garatzen ari dira.</p>
<p>1.6.- Sarratuko bizikidetzaren unitatearen eta eguneko arreta-zentroaren proiektua garatzea. Adinekoentzako bizikidetzaren unitate bat, 16 logelakoa, eta 45 plazako eguneko zentro bat eraikitzea eta martxan jartzea.</p>	GAUZATZEN	<p>Obrak amaitu dute, bi baliabideak altzariz hornitu dituzte eta horien araudiak onartu dituzte. Gaur egun, jarduera garatzeko pleguak idazten ari dira.</p> <p>2027ko lehen hiruhilekoan martxan jartzea aurreikusten dute.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.7.- Arrakala digitala ezabatzea. Ekimen berriak garatzea, Basauriko herritarren zati bat informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien onuretatik eta aukeretatik isolatuta gera ez dadin. Zehazki, pertsona horiek oinarrizko gaitasun digitaletan trebatzeko ikastaroak eskainiko dira.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p><u>Prestakuntza digitaleko tailerrak</u></p> <p>Adinekoen kolektiboan arrakala digitala murrizteko prestakuntza digitala 3 alderditatik lantzen da.</p> <p>1. Oinarrizko prestakuntza ematen da adinekoen zentro guztietan, telefono mugikorra erabiltzeko oinarrizko gauzak ikas ditzaten, Gurutze Gorriarekin elkarlanean. Gainera, 2024az geroztik, Puntu Mugikor bat ezartzen da Arizgoitiko zentroan, oinarrizko prestakuntza hori hamabostean behin emateko.</p> <p>2. SECOT irabazi-asmorik gabeko erakundeko kideek ikastaroak ematen dituzte Pozokoetxe Kultur Etxean; erakunde kide guztiak seniorrak dira, eta beste adineko batzuei ematen diete prestakuntza. Mugikorra erabiltzeko oinarrizkotik gorako ikastaroak ematen dituzte, erabileran trebeagoak izan daitezen.</p> <p>3. Teknologia berriekin eta mugikorraren erabilerarekin lotutako edukiak emateko ikastaroak, Basauriko bi KZguneekin elkarlanean: “Smartphoneak eta tabletak. Zure android gailua erabiltzen ikasi”, “Zure egunerokotasuna hobetuko duten aplikazioak”, “Gmail. Posta elektronikoa baino gehiago”, “Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu”, eta “Argazkiei ukituak eman zure smartphonearekin”.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.8.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen erabateko integrazioa. Udal-zerbitzuetan dibertsitate funtzionalaren ikuspegia txertatzeko prozesua indartzea, pertsona horiek udal-zerbitzuetara iristeko gainerako basauriarrek duten aukera berak dituztela bermatzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>-Ilogailua ipini da Ibaigane Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan, agertokira iristeko aukera bermatzearren.</p> <p>-Sistema berezi bat ipini da Social Antzokian, entzumenean desgaitasuna edo zailtasuna dutenentzat.</p> <p>- Plataforma jasotzailea ipini da Arizgoitiko Adinekoen Etxean.</p> <p>- San Migeleko Adinekoen Etxean irisgarritasuna hobetzeko obrak egin dira.</p>
<p>1.9.- Bizikidetzeta eta aniztasuna sustatzea. "Zurrunmurrueen aurkako Estrategia" programa eta Kulturarteko Bizikidetzaren III. Planean (2022-2025) jasotako jarduerak garatzen jarraitzea, aniztasuna eta kulturartekotasuna gizarte-kohesiorako eta garapenerako faktore bihurtuta.</p>	-	<p>- Zurrunmurrueen Aurkako Basauriko Estrategia gauzatu da (2023 uztaila-2025 ekaina).</p> <p>Talde eragileak hilero egiten ditu bilerak.</p> <p>27 jarduera egin dituzte (irakurketa-kluba; zine-foruma adinekoentzako zentroekin elkarlanean; <i>Escape rooma</i> ZirtZart zerbitzuarekin elkarlanean; <i>Basauriko auzokide berriak, ¿somos un pueblo acogedor?</i> film labur dokumentalaren diseinua eta errealizazioa eta, ondoren, aurkezpena eta solasaldia; hainbat erakunde Zurrunmurrueen Aurkako Estrategiari atxiki zaizkio, eta Zurrunmurrueen Aurkako Mapa Interaktiboan jaso dira...). 27 erakundek hartu dute parte edo lagundu dute estrategian.</p> <p>- Aniztasuna onartu eta errespetatzeko programa indartzea ikastetxeetan. Prestakuntza-programa urtero aurkezten da, ikastetxe guztietan. Ikasleei zuzendutako tailerrak egin dira Gaztelun, Kareagan, Arizko ikastolan, Basauri Ikastetxean eta Urbi Institutuan (5 ikastetxe).</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.9.- Bizikidetzeta eta aniztasuna sustatzea. “Zurumurrueen Aurkako Estrategia” programa eta Kulturarteko Bizikidetzaren III. Planean (2022-2025) jasotako jarduerak garatzen jarraitzea, aniztasuna eta kulturartekotasuna gizarte-kohesiorako eta garapenerako faktore bihurtuz.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kulturarteko III. Bizikidetzeta Plana: Udalbatzako kideentzako eta teknikarientzako urteko formakuntza-programak egin dira migrazio-prozesuei, kulturartekotasunari eta aniztasunaren kudeaketari buruz, hobeto bete ditzaten euren zereginak. Bi urtez behingo lan-tailerrak egin dira tokiko hedabideekin, migrazioaren gaiari buruz sentsibilizatzeko eta gogoeta egiteko. Udalaren posizionamendu publikoa tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde. Herritarrak gonbidatu dituzte horrekin bat egitera. Udal-komunikazioko politika bat finkatu da, bat datorrena kulturartekotasunaren balioekin. -GERTU atzerritarrentzako aholkularitza juridikoko udal-zerbitzua egonkortzea, datozen 4 urteetarako. - Gaztelania ikasteko ibilbide koordinatua sustatzea. - Udalak lagundutako elkarteek kulturarteko bizikidetzeta sustatzeko eginiko praktikak indartu dira, eta aniztasunaren errespetua eta tratu-berdintasuna sustatu dira haren egituran eta funtzionamenduan. <p>AURREKONTU OROKORRA (2023ko uztaila-2025eko ekaina): 97.000 €</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.10.- Berdintasuna txertatzea Basauriko gizarte-erakundeen agendan. Berdintasunaren arloan laguntza eta aholkularitza eskaintzea jai-eragileei, kirol-klubei eta gainerako kultura- eta elkarte-erakundeei, gure udalerrian berdintasunaren aldeko eragile bihur daitezen.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Erasoak prebenitzeko kanpainak. Pegatinak egin dira, eta pankartak eta kartelak jarri. - Jaietako eragileei laguntzea. Bilerak egin ditugu auzo bakoitzeko jai-batzordearekin (batez beste, bilera bi urtean, auzoetan, eta lau bilera urtean, Herriko Taldeakekin). - Basauriko auzoetako jaietan eta sanfaustoetan eta San Migeleko jaietan indarkeria matxista kasurik izanez gero, horien jarraipena eta koordinazioa egiten da, eta salaketa-protokoloa aktibatzen da. Materiala eskaini da. -Indarkeria matxistari buruzko informazio-totemak jaietan -Basauri Kirolak erakundeari informazioa eman zaio “Gizonduz” programak kirolaren arloari begira antolatutako ikastaroei buruz.
<p>1.11.- Basauriko emakumeak ahalduntzea. Basauriko emakumeen ahalduntze pertsonalerako, kolektiborako eta sozialerako jarduerak indartzea, haien aniztasunaren errealitatek abiatuta, arreta berezia jarrita kulturartekotasuna bezalako alderdian.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> -Urtean 18.000 € banatzen ditugu herriko emakumeen 9 elkarten artean, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emanda. Gainera, 3.000 euroko dirulaguntza izenduna eman diogu “Emakumeok Bat” Basauriko Emakumeen Elkarte eta Elkarte Feministen Federazioari. - Jabekuntza Eskolan ikastaro, tailer eta jarduera irekiak programatu dira. Aurrekontua: 60.000 €, bi urterako. - Emakumeen talde autonomoak bultzatu dira (9 talde, bakoitzean, batez beste, 10-15 emakume izanik).

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.11.- Basauriko emakumeak ahalduntzea. Basauriko emakumeen ahalduntze pertsonalerako, kolektiborako eta sozialerako jarduerak indartzea, haien aniztasunaren errealitatetik abiatuta, eta arreta berezia jarrita kulturartekotasuna bezalako alderdietan.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Marieneako zerbitzu eta baliabideak erabiltzen dituztenei harrera egin, aholkuak eman eta laguntza eskaini diegu, banaka nahiz taldeka. 2023an, 3.215 laguni eman genien arreta (2.990 emakume eta 225 gizon), 2024an, 3.500 laguni (2.734 emakume eta 776 gizon) eta 2025ean 4,330 laguni. - Sexu Informazio Bulegoak dibertsitate funtzionala duten emakumeei emandako arreta eta laguntza indartu dira. Aurrekontua: 280.600 €, bi urterako (Jabekuntza Eskola eta Sexu Informaziorako Bulegoa). - Berdintasun Kontseiluan aldizkako bilerak egin dira, eta hura osatzen duten bederatzi erakundeei lagundu zaie. Urtean 5 bilera egiten dira, gutxienez.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.12.- Berdintasuna sustatzea gizarte-eremu guztietan. Basauriko herritarrei zuzendutako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea, hezkidetzako eta aniztasuna aitortzeko eta errespetatzeko proiektua Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan indartzea, eta Marieneako programazioa sendotzea LGTBI+ kolektiboa ikusarazteko. “Zinemakumeak” zinemaldiarekin elkarlanean jarraitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 1ERA 2KAIN proiektuaren esparruko ekintzak Bigarren Hezkuntzan: esku-hartzeak ikasgeletan, talde feministei laguntza, irakasleei aholkularitza. - Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan jolastoki inklusiboak hezkidetzaren ikuspegitik eraldatzeko esku-hartzea egin da (Patioetan Hamaika Aukera). Egun, Lehen Hezkuntzako 4 ikastetxe ari dira parte hartzen, eta beste 2 ikastetxetan hasi dute prozesua. <p>Hezkidetzarako urteko aurrekontua (1ERA 2KAIN): 132.000 €, bi urterako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jabekuntza Eskolako ikastaroak emakume migratuen kolektiboen laguntzarekin antolatu dira. - M17, A26 eta E28 egunetako jarduerak programatu dira. - “Zinemakumeak”en urteko programazioa. - Sexu Informaziorako Bulegoak tailer eta ikastaroak antolatu ditu haur-pornografiari eta adingabeen aurkako gehiegikeriei, hilerokoari, menopausiari, autozaintzari eta abarri buruzguraso-elkarteei, gizonei, emakumeei eta, oro har, herritarrei zuzenduta, bereziki.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.13.- Basauriko Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko II. Plana (2023-2026). Plan horretan jasotako neurriak ezartzea, sentsibilizazioa, prebentzioa eta kontzientzia hartzea, arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea, salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa aintzat hartuta, eta arreta berezia jarrita indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei eta bizirik dirautenei.</p>	GAUZATZEN	<p>-Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko II. Plana 2024ko maiatzaren 30ean onetsi zuten.</p> <p>- Planaren ardatz guztietan garatzen ari den plana ezartzeko teknikaria kontratatu da.</p> <p>- Indarkeria matxistaren biktimen omenezko memorialea inauguratu da, eta plazari Azaroak 25 Plaza izena jarri zaio.</p> <p>- Jarduera horiek A25eko programaren barruan egin dira.</p>
<p>1.14.- Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazioa areagotzea. Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazioa areagotzea. “Behin eta berriro. Planto egin arte! ¿Cambiamos la historia?” ekimenari jarraipena ematea eta Basauriko gizarteko talde eta kolektiboak indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzeko tresna berriak martxan jartzea. Tokiko ostalaritzarekin lan espezifiko egitea, sexu-erasoak prebenitzeko eta jarduteko eta erantzuteko jarraibideak ezartzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>- Sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak egin dira, zenbait kolektibori zuzenduta.</p> <p>- “Behin eta Berriro” ekimena abiarazi da, indarkeria matxistari buruzko bizipen-esperientzia, nerabe eta gazteei zuzenduta. Eszenatoki, argi eta soinu desberdinekin egokitutako instalazio bat da, eta, horren bidez, eguneroko bizitzako uneak ikusi ahal izan ditu publikoak, baita indarkeria matxistako zenbait egoeratan murgildu ere. Horrela, matxismoak emakumeen bizitzan eta gizarte osoan duen eragina ezagutu ahal izan dugu.</p> <p>2023an, 53 saio egin ziren eragile garrantzitsuenekin –314 lagun: 265 emakume (% 84,4) eta 49 gizon (% 15,6)–. Gainera, herritarrei zuzendutako beste 10 emanaldi egin ziren, eta 69 lagunek hartu zuten parte: 63 emakume (% 91,3) eta 6 gizon (% 8,7). Urbi eta Uribarri ikastetxeetako DBHko 4. mailako ikasleak ere izan ziren instalazioa bisitatzen.</p> <p>2025ean 30 pase egin zitzaizkien herritarrei, 276 parte-hartzailerekin.</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.15.- Indarkeria matxistaren biktimei arreta juridikoa eta psikologikoa ematea. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien ardurapean dauden mendeko pertsonen zuzendutako arreta juridikoko eta esku-hartze psikosozioedukatiboko zerbitzu espezializatua garatzen jarraitzea.</p>	GAUZATZEN	<p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzuak 217 emakume artatu zituen, 2023an. Horietatik, 160k laguntza juridikoa jaso zuten, beste 23k laguntza psikologikoa, eta 34k bi laguntza motak.</p> <p>2024an, 206 emakume artatu ziren: 165, arreta juridikoan, eta, 41, arreta psikologikoan, Eta 2025ean, 203 emakume artatu ziren</p> <p>Zerbitzuaren aurrekontua: 244.362 €, bi urterako.</p>
<p>1.16.- Udalean berdintasuna sustatzea. Berdintasunerako Barne Plana onartzea eta Udalaren arlo guztietan ezartzea.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunerako I. Barne Plana 2024ko urriaren 30ean onartu zen. - 2025eko urtarrilaren 27an, teknika bat kontratatu zen planaren ardatz guztietan neurriak ezartzeko.
<p>1.17.- Adikzioei aurrea hartzea. Drogen eta beste edozein adikzioen (jokoa, kasu) ondorio kaltegarriak buruzko kontzientziazio-kanpainak areagotzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da ikastetxeetako jardunean.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Adikzioei aurrea hartzea: Adikzioak Prebenitzeko 2024-2028 Plan berria onartu da. -Ikastetxeekin egindako tailerren jarraipena egin da.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>1.18.- “Guraso Eskola” programa berreskuratzea. “Guraso Eskola” programa berreskuratzea eta eguneratzea, haurren eta gazteen estresa, eskolako bullyinga, balioetan oinarritutako hezkuntza eta adikzioen prebentzioa bezalako gaiak lantzeko.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan lehen taldeak osatu dira, eta 2024-2025 ikasturtean hainbat saio egin dituzte.</p> <p>Guztira, 248 gurasok hartu dute parte Basauriko Guraso Eskolan; Basauriko Udalak bultzatutako eta BIGE Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioak antolatutako programa da, eta familiei zuzendutako mendekotasunen prebentziorako prestakuntza-tailerrak ematen dira, udalerriko eskola eta institutu publikoetan.</p> <p>Basauriko ikastetxe publiko guztietako gurasoek parte hartu dute programako trebakuntza-saioetan. Urtarriletik ekainera bitarte, ordu eta erdiko 24 saio egin dira, guztira, gehi tailer orokor bat, Basauriko eskola-komunitate osoari begira, mugikorren eta pantailen erabilerari buruz.</p>



2. ardatza- Basauri ENPLEGUAREKIN, GARAPEN EKONOMIKOAREKIN ETA TOKIKO MERKATARITZAREKIN

JARDUERAK

- 2.1.- Enplegu planak.
- 2.2.- Prestakuntza, bitartekaritza eta ekintzailera sustatzea.
- 2.3.- Gazteen enplegua sustatzea.
- 2.4.- Enpresa-aukerarako gure espazioak garatzea.
- 2.5.- Gertuko merkataritzari, ostalaritzari eta ekonomiari laguntzea.
- 2.6.- MBPEa berrikustea eta egiteke dauden ekintzak abiatzea.
- 2.7.- Merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko kanpainak bultzatzen eta programa berriak sortzen jarraitzea.
- 2.8.- Saltokietarako laguntzak eta hobariak, eta kontsumo-bonuak.
- 2.9.- Merkataritza-sektoreari laguntzen dioten baliabideak optimizatzea.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.1.- Enplegu Planak. Lan-prestakuntza eta lan-orientabidea dakartzaten enplegu-planak garatzen jarraitzea, Basauriko langabetuen enplegarritasuna hobetzeko beren lanbide-gaitasunak eguneratuz eta birmoldatuz.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>Lanbidek sustatu eta Eusko Jaurlaritzak eta Basauriko Udalak kofinantzatutako enplegu-planak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ALPE 2023 (2024an gauzatu da). Langabeei, oro har, zuzenduta. Bideratutako aurrekontua: 469.962,31 € Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 34 (7 emakume eta 27 gizon) -ALPE 2024 (2025ean gauzatu da). 2025eko ekaina baino lehen amaitu da. Bideratutako aurrekontua: 474.726,71 € Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 34 (28 emakume eta 6 gizon) - ENPLEGU-FORMAKUNTZA PLANA. LEHENTASUNEZKO ARRETAKO KOLEKTIBOAK 2023 (2024an gauzatu da). 45 urtetik gorako pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan daudenentzat. Bideratutako aurrekontua: 629.258 €. Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 33 (25 emakume eta 9 gizon) - ENPLEGU-FORMAKUNTZA PLANA. LEHENTASUNEZKO ARRETAKO KOLEKTIBOAK 2024 (2025ean gauzatu da). 2025eko irailaren 30a baino lehen amaitu da Bideratutako aurrekontua: 416.347,64 € Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 20 (9 emakume eta 11 gizon) - GAZTEENTZAKO EFG PLUS ENPLEGU-PLANA 2023 (2024an gauzatu da) Bideratutako aurrekontua: 222.851,39 € Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 5 (3 emakume eta 2 gizon)



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.1.- Enplegu Planak. Lan-prestakuntza eta lan-orientabidea dakartzaten enplegu-planak garatzen jarraitzea, Basauriko langabetuen enplegarritasuna hobetzeko beren lanbide-gaitasunak eguneratuz eta birmoldatuz.</p>	GAUZATZEN	<p>- GAZTEEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LEHEN LANBIDE-ESPERIENTZIA IZATEKO PLANA 2024 (2025ean gauzatu da). Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazte langabeei zuzentzen zaie, baldintzak izanik ikasketak azken hiru urteetan amaitu izana eta titulazioari lotutako lan-esperientziarik ez izatea.</p> <p>Bideratutako aurrekontua: 416.347,64 €</p> <p>Udalean kontratatutako pertsonen kopurua: 131 (74 emakume eta 57 gizon)</p>
<p>2.2.- Prestakuntza, bitartekaritza eta ekintzailatza sustatzea. Basauriko gazteen enplegarritasuna bultzatzea eskualdeko enprekin egindako lankidetzak-hitzarmenen bidez. Bideragarritasun-azterlan bat egitea gazteek bultzatutako enpresa-ekimen berriei espazioak lagatzeko programa bati buruz.</p>	GAUZATZEN	<p>Behargintzaren bidez egindako ekintzak</p> <p>1. Lana bilatzeko orientazioa <u>2023</u>. Orientazioa jaso dutenen kopurua: 325 // <u>2024</u>. Orientazioa jaso dutenen kopurua: 392 // <u>2025</u>. Orientazioa jaso dutenen kopurua: 441</p> <p>2. Lana bilatzeko prestakuntza-ekintzak <u>2023</u>. Prestakuntza-ekintzen kopurua: 21 // Trebatutako pertsonen kopurua: 255 <u>2024</u>. Prestakuntza-ekintzen kopurua: 22 // Trebatutako pertsonen kopurua: 270 <u>2025</u>. Prestakuntza-ekintzen kopurua: 21 // Trebatutako pertsonen kopurua: 246</p> <p>3. Bitartekaritza <u>2023</u>. Baliatutako eskaintzen kop.: 75 // Itxitako bitartekaritzen kopurua: 38 <u>2024</u>. Baliatutako eskaintzen kop.: 85 // Itxitako bitartekaritzen kopurua: 54 <u>2025</u>. Baliatutako eskaintzen kop.: 101 // Itxitako bitartekaritzen kopurua: 49</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.2.- Prestakuntza, bitartekaritza eta ekintzailetza sustatzea, Basauriko gazteen enplegarritasuna bultzatzea eskualdeko enprekin egindako lankidetzaz hitzarmenen bidez. Bideragarritasun-azterlan bat egitea gazteek bultzatutako enpresa-ekimen berriei espazioak lagatzeko programa bati buruz.</p>	GAUZATZEN	<p>Behargintzaren bidez egindako ekintzak</p> <p>4. Ekintzailetza sustatzeko ekintzak <u>2023.</u> Artatutako ekintzaileen kopurua: 171 // Trebatutako pertsonen kopurua: 73 // Tutoretzapeko proiektuen kopurua: 140 // Aholkularitza Zerbitzuak artatutako ekintzaileen kopurua: 192 <u>2024.</u> Artatutako ekintzaileen kopurua: 186 // Trebatutako pertsonen kopurua: 76 // Tutoretzapeko proiektuen kopurua: 140 // Aholkularitza Zerbitzuak artatutako ekintzaileen kopurua: 192 <u>2025.</u> Artatutako ekintzaileen kopurua: 180 // Trebatutako pertsonen kopurua: 44 // Tutoretzapeko proiektuen kopurua: 189 // Aholkularitza Zerbitzuak artatutako ekintzaileen kopurua: 232</p> <p>5. Sortutako enpresak <u>2023.</u> Lagundutako enpresen kopurua: 57 // Lagundutako enpresetan sortutako lanpostuen kopurua: 73 <u>2024.</u> Lagundutako enpresen kopurua: 44 // Lagundutako enpresetan sortutako lanpostuen kopurua: 61 <u>2025.</u> Lagundutako enpresen kopurua: 52 // Lagundutako enpresetan sortutako lanpostuen kopurua: 64</p> <p>6. Enpresa berriak sendotzea (2023) <u>2023.</u> Enpresen kopurua aholkularitza: 105 <u>2024.</u> Enpresen kopurua aholkularitza: 110 <u>2025.</u> Enpresen kopurua aholkularitza: 116</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.3.- Gazteen enplegua sustatzea. Basauriko gazteen enplegarritasuna bultzatzea eskualdeko enprekin egindako lankidetzaz hitzarmen bidez. Bideragarritasun-azterlan bat egitea gazteek bultzatutako enpresa-ekimen berriei espazioak lagatzeko programa bati buruz.</p>	GAUZATZEN	BIZKAIA GAZTEAK proiektuaren eskualdeko hitzarmena: prestakuntza/lan arloko orientazioa emateko urteko saioak, ekintzailtzako jardunaldiak sortzea eskualdeko enprekin batera, prestakuntzaren azken etapetan dauden gazteei zuzenduta.
<p>2.4.- Enpresa-aukerarako gure espazioak garatzea. Basauriarrei enplegu-aukerak eskaintzeko moduko enpresa berriak instalatzen laguntzea, gure aukeraguneak, La Baskonia eta Mercabilbao bezalako guneak aprobetxatuz eta gure industrialdeak hobetuz.</p>	GAUZATZEN	Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin gestioak egin ditugu, herriko aukera-lurretan enpresa berriak ezartzea errazte aldera.
<p>2.5.- Gertuko merkataritza, ostalaritza eta ekonomiari laguntzea. Behargintzatik sektore horiekin lan-ildo zehatz bat sendotzea, eta kontsumo-ohitura berrietara egokitzen, digitalizatzen, merkataritza-estrategiak berriz diseinatzen, belaunaldi-erreleboan eta prestakuntzan laguntzea.</p>	GAUZATZEN	<p>Behargintzaren bidez egindako ekintzak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Merkataritzako prospekzioa (2024). Saltokien kopurua: 51 2. Enpresa-aholkularitza (2024). Saltokien kopurua: 28 3. Saltokien errolda egitea: 2024ko abenduan hasi, eta 2025eko ekainean amaitu da

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.6.- MBPEa berrikustea eta egiteke dauden ekintzak abiatzea. Europako funtsek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea, egungo merkataritza-sarea garatzea, eta bizitegi-eremu berrietan gertuko merkataritzaren ezarpena sustatzea eta ahalbidetzea.</p>	GAUZATZEKE	<ul style="list-style-type: none"> - MSPBn jasotako neurriak ezartzy dira bere jarduera-ildoetan: <ul style="list-style-type: none"> • Publizitate-panelak homogeneizatu dira • Merkataritza-sarearekiko lankidetzaren indartzea da • Lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzen lagundu da. - Bizkaiko produktuen merkatua abian jarri da - Bizkaidendak elkartearen gala Basaurin egin da
<p>2.7.- Merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko kanpainak bultzatzen eta programa berriak sortzen jarraitzea. “Basauri Pintxo Helmuga” bezalako ekintzak eta beste kanpaina zehatz batzuk garatzen jarraitzea. “Adineko pertsonekin merkataritza atsegina” programa sustatzea, kolektibo horri arreta berezia eskaintzen dioten saltokiak identifikatzeko.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - “Pintxo Helmuga” kanpaina. Sustapen-ekintzetan parte hartu duten ostalaritzako establezimenduen kopurua: 119 hiru urteetan. - Gabonetan kontsumoa sustatzeko kanpaina Banatutako sarien kopurua: 4.000 baino gehiago hiru urtean. <p>Aurrekontua: 195.000 €, bi urterako</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>2.8.- Saltokietarako laguntzak eta hobariak, eta kontsumo-bonuak. Saltokiak modernizatzeko eta beren lehiakortasuna hobetzeko inbertsio-laguntzak ematen jarraitzea eta, ahal den neurrian, handitzea. Saltokietarako laguntza- eta hobari-formulak aztertzea, lonjak eta espazio berriak edo jarduera bertan behera utzia dutenak okupatzeko ekimen berrien ezarpena handitzeko. “Kontsumo-bonuak Basauriko dendetan” kanpainarako zuzkidura ekonomikoa handitzea.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - “Bono Basauri” kanpaina Merkataritza-bonuen kanpainan parte hartu duten establezimenduen kopurua: 423 hiru urteetan Merkataritza-bonuetara bideratutako udal-aurrekontua: 300.000 € urtean - Merkataritzarako, ostalaritzarako eta ETEen lehiakortasunerako laguntzak. 2023ko maiatzetik 2025eko apirilera, 237 dirulaguntza eman dira. Aurrekontua: Aurrekontua: 65.252 € urtean
<p>2.9.- Merkataritza-sektoreari laguntzen dioten baliabideak optimizatzea. Merkataritzako Bulego Teknikoaren balioa azpimarratzea, tokiko eta eskualdeko saltokiei laguntzen dien organo gisa. Informazio-panel berriak erabiltzea Basauriko saltokiek bezeroei ematen dieten arretaren kalitatea nabarmentzeko.</p>	GAUZATZEN	Merkatari Elkarterako dirulaguntzak. Aurrekontua: 118.504 €, bi urterako



3. ardatza- Basauri HEZKUNTZAREKIN ETA GURE GAZTEENTZAKO AUKEREKIN

JARDUERAK

- 3.1.- Ikasketa-gelak.
- 3.2.- Eskola-jolastoki irekiak eta inklusiboak.
- 3.3.- Lankidetzaz hezkuntza-komunitatearekin.
- 3.4.- Haurreskolak.
- 3.5.- Gazteria Plana.
- 3.6.- Gazteria Zerbitzua hurbiltzea.
- 3.7.- Gaztegunea indartzea. Gaztegunean aisialdi-erakunde berria sartzeko.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
3.1.- Ikasketa-gelak. Ikasketa-geletarako ordutegi zabaldueri eustea.	GAUZATZEN	Legegintzaldi honetan, ordutegi zabalduari eutsi diogu.
3.2.- Eskola-jolastoki irekiak eta inklusiboak. “Patioak Zabalik” programaren alde apustua egiten jarraitzea, ikastetxeetan dinamizazio-jarduerak eskainiz. “Patio Inklusiboak” programa garatzen jarraitzea, kirola, integrazioa eta aniztasunarekiko errespetua sustatzeko. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea, ikastetxe publikoen instalazioak aprobetxatzeko eskolaz kanpoko ordutegietan, goiztiarren gelen eta hezkuntza eta kirol arloko eskolaz kanpoko ekintzen bitartez, familiei kontziliatzen laguntzeko.	GAUZATZEN	<p>- “Patioak Zabalik” programa Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara zabaltzea, patioak eskola-ordutegitik kanpo zabalik izateko, herritarrek erabil ditzaten. Gainera, programa hobetu dugu, eta astean zehar ere egongo dira zabalik, eskola-jarduna bukatzen denean (lehen, asteburuetan eta oporretan soilik irekitzen ziren).</p> <p>- Udan, gune horiek zabaltzeaz gain, dinamizatzailerak egoten dira zenbait patiotan, eta haurrentzako jokoak eta jarduerak antolatzen dituzte, aisialdia, bat-egitea eta komunitatearen elkarbizitza sustatuta.</p>
3.3.- Hezkuntza-komunitatearekiko lankidetzak. Gure eskumenen barruan, guraso-elkarteekin eta eskola-zentroekin lankidetzan jarraitzea beren jarduerak garatzen, Udala benetan hezkuntza-komunitatearen beste pieza bat izan dadin.	GAUZATZEN	<p>- Herriko IGEekin etengabe lanean.</p> <p>- Jarduerak egiten laguntzeko dirulaguntza-lerroak indartu dira: 41.404 euro 2025. urtean.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>3.4.- Haurreskolak. Udalerrian 0 eta 2 urte bitarteko haurren eskolatzeko beharrak aztertzea eta, plaza nahikorik ez dagoela ikusiz gero, Haurreskolen Partzuergoari gune berriak sor ditzala eskatzea zerbitzu hori familiei eskaintzeko eta, horrela, Basaurin antzemandako eskaerari erantzuteko.</p>	GAUZATZEN	<p>Sarratu eta Pozokoetxe artean Haurreskola bat eraikitzeko proiektua nork idatziko duen adjudikatu da.</p> <p>1.000.000 euro bideratu dira 2026ko aurrekontuan, eraikina eraikitzeko.</p>
<p>3.5.- Gazteria Plana. Gazteria Plan bat egin eta gauzatzea aisialdi osasungarri alternatiboa sustatzeko eta gazte basauriarrei emantzipazio-prozesuetan laguntzeko, enplegua eta etxebizitza lortzeari buruzko informazioa eta laguntza eskainita. Basauriko gazteek parte hartuko dute Planaren diseinuan eta kudeaketan.</p>	GAUZATZEKE	<p>Aurreikuspenaren arabera, plana 2026an idatziko da.</p>



3.6.- Gazteria Zerbitzua hurbiltzea.

Gazteria Zerbitzua Basauriko auzoetara eta gazteak biltzen diren eta elkarrekin jarduten duten gunetara hurbiltzea.

GAUZATZEN

- Kontsultak Gazte Bulegoan, 2024ko irailetik 2025eko irailera: 2910 kontsulta

- Jarduerak auzoetan :

Basozelai: Urban Festa, Basozelai Open Skate, Basozelai Open Rubik eta Gazteguneko Ibiltaria

San Migel; Gazteguneko Ibiltaria, GEosanmi

Kareaga: Gazteguneko Ibiltaria

Uribarri: Festibas, “Udaberri Basauri” programaren barruko jarduerak

Ariz: Gazteguneko Ibiltaria, Asian Dance

Arizgoiti: festak Social Antzokian, musika-taldeak eratzeko ikastaroetako entzunaldia

- Aholkularitza psikologikoko zerbitzu berria: 11 gaztek (12-23 urtekoak) erabili dute zerbitzua, eta, guztira, 29 hitzordu hartu dituzte, 2024ko urritik 2025eko uztaile bitarte

- *Coworking* areto berria: 27 erreserba, 12-26 urteko 96 gaztek erabili dute

- Lanbide-orientazio eta etxebizitza jardunaldiak gazteentzat, martxoaren 10etik 31ra bitarte

Parte-hartzaileak: 18 urtetik gorako 91 lagun

- Aisialdiko begirale-ikastaroa: 18-22 urteko 20 parte-hartzaile, eta eskainitako plaza guztiak bete dira. Bi ikaslek ZirtZart Zerbitzuko lan-taldearekin egin dituzte praktikak



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>3.7.- Gaztegunea indartzea. Gaztegunean aisialdi-eskaintza berria sartzea. Ate irekien jardunaldiak antolatzea egiten diren jarduerak ezagutarazteko eta Basauriko gazteekin informazioa eta ideien eta proposamenen trukea sustatzeko.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzaile kopurua, 2024ko irailtik 2025eko irailera: 12-18 urteko 6.852 gazte. - Gaztegunea Ibiltaria. Proiektuaren hasierako asmoa zen larunbat goizetan jarduerak txandakatzea Basauriko hainbat auzotan (Ariz, Basozelai, San Migel eta Kareaga), baina lehenengo edizioan egiaztatu zenez auzo jakin batzuetan ez zela erantzunik jasotzen, bigarren deialdia San Migel eta Basozelai auzoetan soilik egiten ari da. - Gazte Asanblada: Gaztegunearen erabiltzaileei (12-18 urte) zuzendutako deialdia, programaziorako proposamenak, kexak eta iradokizunak talde-dinamiken bidez jasotzeko. Lehen deialditik harrera ona izan du, 20 gazte inguruk parte hartu baitute, eta, beraz, hiru hilean behin egitea erabaki da, erantzun ona duelako eta erabilgarria delako.



4. ardatza- Basauri BIZIGARRIA, JASANGARRIA ETA SEGURUA

JARDUERAK

- 4.1.- Etxebizitza eskuratzea.
- 4.2.- San Fausto-Bidebieta-Pozokoetxe Hiri Berroneratzeko Plan Berezia.
- 4.3.- Larrazabaleko eremua birgaitzea.
- 4.4.- Kareaga-Basozelai lotura.
- 4.5.- Kareaga Goikoko hirigintza-garapena.
- 4.6.- Konektibitate hobea eta seguruagoa.
- 4.7.- San Migel eta metroaren arteko lotura hobetzea.
- 4.8.- Renferen San Migeleko geltokiaren ondotik doan espaloia handitzea.
- 4.9.- Zumalakarregi kalearen hirigintza-berrikuntza.
- 4.10.- Urbiko plaza hobetzea.
- 4.11.- Aparkaleku gehiago eta hobeak.
- 4.12.- Basauri irisgarria.
- 4.13.- Parkeak eta aisialdirako guneak hobetzea eta berritzea.
- 4.14.- Bizikletak garbitzeko gune bat jartzea San Migeleko txakurren gunean.

- 4.15.- Mugikortasun Jasangarriaren Plan berria.
- 4.16.- Hiri-baratzeak.
- 4.17.- Eraginkortasun energetikoa udal-ekipamenduetan eta espazio publikoan.
- 4.18.- Energiaren autokontsumo partekatuari eta energia-subirotasunari laguntzea.
- 4.19.- Klima-aldaketaren eraginak prebenitu eta murriztea.
- 4.20.- Ekonomia zirkularraren garapena.
- 4.21.- Zarata arautzeko ordenantza berria.
- 4.22.- Airearen kalitatea neurtzea.
- 4.23.- Gure maskoten zaintza arduratsua.
- 4.24.- Udaltzaingoa gertuago.
- 4.25.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babestea.
- 4.26.- Bide-segurtasun handiagoa.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.1.- Etxebizitza eskuratzea. Etxebizitza babestuaren eredia eta arrazoizko prezioan etxebizitza librea eraikitzea defendatzea, herritar guztiek oinarrizko eskubide hori izango dutela bermatzeko. Etxebizitza babestuak sustatzea Azbarrenen eta La Basconian, bai eta Azbarrenen eta San Migelen zuzkidura-bizitokiak ere. Etxebizitza kolaboratiboa (<i>cohousing</i>) sustatzea, horrelakoak garatzeko aukerak identifikatuta eta etxebizitza eskuratzeko bide horri buruzko informazio-kanpaina bat bultzatuta.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzari partzela bat laga zaio San Migelen, beste 18 zuzkidura-bizitoki eraiki ditzan. - Basauriko etxebizitzaren diagnostikoa idatzi eta aurkeztu da, eta tentsionatutako udalerriz izendatzeko eskaera egiteko ekintza-plana kontratatu da. - Aurrera jarraitzen dugu Azbarrenen alokairu sozialeko 368 etxebizitza eta 24 zuzkidura-bizitoki egiteko. - SEPESek dagoeneko aurkeztu ditu La Basconiako jarduketa-plan berezien aurrerapenak; alokairu eskuragarriko 398 etxebizitza eraikiko dira. - San Migel Mendebaldea partzelaren jabeekin gestioak egin dira, etxebizitza gehiago eraiki ahal izateko. - Etxebizitza tasatuaren ordenantza aldatu da, etxebizitzaren sustapena eta eskuragarritasuna ahalbidetzeko. - Gazteria Atalarekin elkarlanean, 2025eko maiatzean jardunaldiak egin ditugu hainbat erakundek gazteei emantzipatzen laguntzeko ematen dituzten laguntzen berri emateko, eta Alokabideko arduradunek parte hartu dute.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.1.- Etxebizitza eskuratzea. Etxebizitza babestuaren eredia eta arrazoizko prezioan etxebizitza librea eraikitzea defendatzea, herritar guztiek oinarritzko eskubide hori izango dutela bermatzeko. Etxebizitza babestuak sustatzea Azbarrenen eta La Basconian, bai eta Azbarrenen eta San Migelen zuzkidura-bizitokiak ere. Etxebizitza kolaboratiboa (<i>cohousing</i>) sustatzea, horiek garatzeko aukerak identifikatuta eta etxebizitza eskuratzeko bide horri buruzko informazio-kanpaina bat bultzatuta.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bidebiren bulego berria inauguratu dugu, herritarrei arreta hobea ematearren. Sozietate horrek 15 urte bete ditu, eta etxebizitza babestuak sustatzeko jarduera-eremuak garatzeaz arduratzen da: Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren leihatila gisa funtzionatzen du herritarrek izapideak Basaurin egin ahal izan ditzaten, eta BIZIGUNE etxebizitza hutsen programari eta etxebizitza alokatzeko ASAP bitartekaritza-programari buruzko informazioa ematen die herritarrei. - Beste hitzarmen bat sinatu dugu Etxebiderek, herritarrek izapideak elektronikoki egiteko aukera izan dezaten, egoitza elektronikoaren edo Etxebideren aplikazioaren bitartez. - 2026ko ordenantza fiskalak: % 99ko hobaria OHZn etxebizitza-jabeei, baldin eta etxebizitza erakunde publiko batek bultzatutako etxebizitza hutsaren edozein programatarako (Bizigune edo ASAP, esaterako) lagatzen badute. Kenkariaren ehuneko hori udalek ezar dezaketen zerga-onura handiena da. % 150eko errenergua OHZn, etxebizitza hutsen kasuan.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.2.- San Fausto-Bidebieta-Pozokoetxe Hiri Berroneratzeko Plan Berezia. San Fausto-Bidebieta-Pozokoetxe eremuko hiri-berroneratzeko jarduerak garatzen jarraitzea. Jarduera horien artean daude etxebizitza eta zuzkidura-bizitoki berriak sustatzea, irisgarritasuna eta auzoen arteko lotura hobetzea, tritxera gainean oinezkoentzako pasabide bat jartzea eta hiri-parke bat sortzea.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Obra amaitu da, eta San Fausto plaza berria 2025eko abenduan ireki da. - Pozokoetxe parkearen lehen faseko obrak 2026ko urtarrilean hasi dira lanak, aurrekontua 1.297.213 € inguru izanik. Obrak egiteko epea 7 hilabetekoa izango da.
<p>4.3.- Larrazabaleko eremua birgaitzea. Birgaitu daitezkeen hirigintza-eremuetarako udalaz gaindiko baliabideak aztertzea eta eremu horietarako sarbidea erraztea, Larrazabaleko eremua eraberritzeko, La Basconiaren inguruko hirigintza- eta gizarte-garapenarekin batera.</p>	GAUZATZEKE	



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.4.- Kareaga-Basozelai lotura. Kareaga eta Basozelai auzoak lotzea, ingurunearen irisgarritasun unibertsala bermatzeko, Karmelo Torre kalea hobetzea barne.</p>	GAUZATZEN	<p>-Kareaga eta Basozelai era irisgarrian lotuko dituzten 5 igogailuak eraikitzeko proiektua idatzi da.</p> <p>- Eraikuntza-obren kontratua adjudikatzeko lizitazio-prozesua 2025eko abenduan abiarazi da, eta esleitzear dago.</p> <p>5. igogailua jartzeko lursaila desjabetzen ere hasia da.</p>
<p>4.5.- Kareaga Goikoko hirigintza-garapena. Kareaga Goikoa kalean (1., 3., 5. eta 7. zenbakiak) hirigintza-garapena bultzatzea eta ahalbidetzea.</p>	GAUZATZEN	<p>- HAPOaren aldaketa puntuala onetsi da egikaritze-unitate bakarra sortzeko. Horri esker, hirugarren bati saldu ahal izango zaio lursaila, ingurua urbanizatzeko eta Bizkotxalden 94 etxebizitza berri eraikitzeko.</p>
<p>4.6.- Konektibitate hobe eta seguruagoa. Lanean jarraitzea administrazio eskudunek metroaren L5aren eta L2aren lotura errealtate bihurtzeko. Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin lankidetzan aritzea, Urbiko, Arizko eta Kareagako trenbide-pasaguneak kentzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>- Basauriko Udalak erakunde eskudunekin egindako gestio eta erreklamazioen ondorioz, metroaren 2. eta 5. lineek bat egitea lortu da azkenean. Horrela, Sarratun 5. linea hartu ahal izango da, basauriarrak zuzenean Galdakaoko Ospitalera joan ahal izan daitezten.</p> <p>- Basauriko Udalak ETS Eusko Trenbide Sareari eskatzen dio, oraindik ere, salgaien trafikoa eta trenbide-pasaguneak ken ditzala herritik.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.7.- San Migel eta metroaren arteko lotura hobetzea. San Migeletik metrorako lotura-autobusaren ordez Bizkaibuseko zerbitzu bat jartzea, eta Udalak metrotik doakoa izango dela bermatzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>Bizkaibusekin eta Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin (BGP) lanean ari gara Aldundia diseinatzen ari den etorkizuneko mugikortasun-ereduan txertatzeko, San Migeletik metrora eta metrotik San Migelera doazen herritarrei kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzearren.</p> <p>2026ko urtarrilaren 1ean, lotura-autobus zerbitzua martxan hasi da, eta, aurrekontua handitu denez, zenbait hobekuntza egin ahal izan ditugu irisgarritasunaren eta mugikortasun kuspuntutik.</p>
<p>4.8.- Renferen San Migeleko geltokiaren ondotik doan espaloia handitzea. Jarduera horren helburua da espaloia konpontzea, zabalagoa izan dadin, eta eremua berrurbanizatzea, egungo egoera hobetzeko eta irisgarritasuna bermatzeko.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>-Eleuterio Villaverde kalearen zati bat eta Ganguren Mendi kalea, San Migeleko futbol-zelaiaren ondoan, berrurbanizatzeko proiektua idatzi da. Proiektua berrikusi ondoren, berdegune bat sortzea proposatu da, ahalik eta zuhaitz gehien izateko eta irisgarritasuna bermatzen duten elementuekin urbanizatzeko, espaloi zabalak ipinita eta oinezkoen pasabide adimendunak eginda.</p> <p>Berrurbanizatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obrak 2025eko irailean hasi ziren, eta obrak gauzatzeko 5 hilabeteko epea dago, 438.760 euroko aurrekonturekin.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.9.- Zumalakarregi kalearen hirigintza-berrikuntza. Zumalakarregi kalea osorik berrurbanizatzea, irisgarri egiteko eta haren zabalera handitzeko, hiri-bilberako ardatz estrategikoa baita.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Obrak 2025eko maiatzean hasi ziren. Aurrekontua 1.357.820 euro da, eta obrak egiteko epea, berriz, 7 hilabete. Proiektuaren lehen fasea gauzatu da.
<p>4.10.- Urbiko plaza hobetzea. Urbiko plazako hiri-altzariak berritzea eta garbiketa hobetzea.</p>	AMAITUTA	<ul style="list-style-type: none"> - Plazako baldosak dekapatu dituzte, eta plazan ibilgailuen sarbidea kontrolatzen duen pibote berria jarri dute. Jarduera horiek egiteko inbertsioa 4.424 € izan da. - Zirkulazioa oztopatzen zuten eta zoladuran finkatuta zeuden elementuak kendu dira, eta, hartara, irisgarritasuna eta oinezkoen mugikortasuna hobetu dira. - Plazako banku eta zarama-ontziak margotu dituzte.
<p>4.11.- Aparkaleku gehiago eta hobeak. Aparkaleku gehiago eraikitzea eta daudenak beste modu batean antolatzea, erabilera optimizatzeko eta trafikoa baretzen laguntzeko. Artunduagako kiroldegiko aparkalekua eta Soloarte Ikastetxearen ondoko lur gaineko aparkalekua berritzea. Merkataritzaguneen inguruan txandakako beste aparkaleku bat martxan jartzearen bideragarritasuna aztertzea, balizko kontsumitzaileak ahalik eta gehien hurbiltzeko eta haiek iristea errazteko.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Bilbondorako sarbidean Artunduaga kaleko errepidea (306.715 €) eta Artunduagako kiroldegiko aparkalekua (123.077 €) berriro asfaltatzeko obrak amaitu dira. - Soloarte, Fleming doktorea eta Ménéndez y Pelayo kaleak berriro asfaltatzeko obrak amaitu dira (96.933 €). - Bizkotxalde inguruko aparkalekuan irisgarritasuna hobetzeko eta aparkalekuko plazak optimizatzeko proiektua berrikusten ari dira, ingurumen-araudi berrira egokitzearen.

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.12.- Basauri irisgarria. Gure herria irisgarritasun unibertsaleko udalerrri bilakatzen jarraitzea; horretarako, igogailuak edo antzekoak jartzea, espaloi zabalagoak eraikitzea, erkidegoei erraztasunak ematea, eta bizilagunen bizitza erabat betea bermatzeko eskura dugun edozein tresna erabiltzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Basauriko Irisgarritasun Planaren eguneratzea behin betiko onetsi da (2025eko urtarrila). - 2024an, 107.558 € eman ziren dirulaguntzetan, jabeen erkidegoetako irisgarritasuna hobetzeko, eta 18 erkidegok jaso zuten laguntza (2025. urtean, 92.364 € eta 17 erkidego izan dira). - Eleuterio Villaverde kalearen zati bat eta Ganguren Mendi kalea (San Migeleko futbol-zelaiaren ondoan) berrurbanizatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obrak egiten ari dira, epea 5 hilabete eta aurrekontua 438.760 euro izanik. - Zumalakarregi kalea berrurbanizatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obrak egiten ari dira, aurrekontua 1.357.820 euro eta epea 7 hilabete izanik. Proiektuaren lehen fasea gauzatu da. - Oinezkoentzako pasabide berria, Francisco Kortabarria eta Oleta kaleen arteko bidegurutzean. - Kareaga Goikoa 50 eta Andaluzia 1 zenbakietako oinezkoen pasabideetan eta Soloarteko parkerako sarbidean irisgarritasuna hobetzen ari dira. - Arrapala mekanikoak hobetzeko obrak amaitu dira. - Igogailuetako mantentze-lanen kontratuan hobekuntzak egin dituzte, konponketak ahalik eta arinen egin daitezela, epeak laburtuta. - Artunduagako kiroldegia berriro asfaltatzeko obra eginda, oinezkoentzako sarbide zuzenagoa eta seguruagoa sortu da, ibilgailuekin interferentziarik izan gabe. Inbertsioa: 123.000 euro.

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.13.- Parkeak eta aisialdirako guneak hobetzea eta berritzea. Bizkotzalde parkea erabat berritzea, <i>pump track</i> gune bat, ur-jolasak eta orientazio-ibilbideak instalatuz. Bizkotzaldeko parkean erabilera anitzeko egitura estalia eta egonkorra eraikitzea. Hernan Corteseko haurreskolako patioa hobetzea, aisialdirako gune bihurtzeko. Beste parke, kirol-kantxa eta eskola-jolastoki batzuk estaltzea, baita eserlekuen guneak ere.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko parkeak eta atsedenlekuak etengabe hobetzeko prozesuaren barruan, Nekazarien parkeko eta Iñigo Cabacas parkeko lurzoruak berritu dituzte. Halaber, Kareaga HLHI eta Sofia Taramona HLHI ikastetxeetako parkeak erabat berritu dituzte. Era berean, Basozelai Gizarte Etxeko jolas-eremuaren estalkia berritu dute, eta Bizkotzaldeko haur-parkean ere jardun da; hain zuzen ere, usoengandik babesteko sarea jarri da estalkian. - Aire zabaleko kirol-eremuei dagokienez, kalistenia-eremu bat jarri dute Castilnovo plazan, eta Soloarteko pilotalekuetan itxitura eta sarea berritu dituzte. Margotu ere egin da, eta euri-uren bilketa hobetu. Jarduera horiek guztiak egiteko 147.393 € inbertitu ditugu. - Solobarria plazako eserlekuen gune bat estali da (73.810 €) - Basozelaiko parkean estalkia ipintzeko eta erabilera anitzeko pista bat egiteko obrak hasi dira (619.520 euro) - Soloarte parkean eserlekuen gune estali bat egiteko obraren adjudikazioaren lizitazio-prozesua hasi da (99.994 euro)



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.14.- Bizikletak garbitzeko gune bat jartzea San Migeleko txakurren gunean. Gernika kaleko 62. zenbakiaren irisgarritasuna hobetzearen bideragarritasuna aztertzea, eta, modu paraleloan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea bizikletak garbitzeko gune bat instalatzeko, eta, horrela, herritarrentzako jolaserako eta aisialdirako gune berri bat sortzea.</p>	<p>AMAITUTA</p>	<p>San Migeleko txakurren gunean bizikletak garbitzeko gune bat jartzeko lanak Herrilaretako Udal Brigadak jadanik amaitu ditu, Taberna Nagusiaren atzealdean .</p> <p>Gernika kaleko 62. zenbakian oinezkoentzako pasabide altu eta irisgarri bat ere jarri dute</p>
<p>4.15.- Mugikortasun Jasangarriaren Plan berria. Oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza hobetzea. Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria sustatzea, oinezkoen lehentasunezko eremuak edo bizikidetzaren eremuak bezalako neurrien bidez. Zamaletarako gunea berrantolatzea anbulatorioaren eta Kareagako autobus-geltokiaren ondoan. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren sare publikoa garatzen jarraitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>-Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana behin betiko onetsi da (2025eko maiatza).</p> <p>- Eskola-inguruneak aztertzen ari gara, seguruagoak izan daitezkeen, eta zebra-bideetan ikuspena hobetuko duten elementuak txertatuko ditugu pixkanaka, baliza islatzaileak dituzten pasabide adimendunen bitartez.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.15.- Mugikortasun Jasangarriaren Plan berria. Oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza hobetzea. Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria sustatzea, oinezkoen lehenetsuneko eremuak edo bizikidetzaren eremuak bezalako neurrien bidez. Zabalantzerako gunea berrantolatu anbulatorioaren eta Kaleroko autobus-geltokiaren ondoan. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren sare publikoa garatzen jarraitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>- Agirre Lehendakaria kalea bizigarriago egiteko proiektua idazteko kontratua adjudikatu da, 73.254 euroan, eta proiektua aurkezteko 7 hilabeteko epea izango da. Erdialdean oinezkoen mugikortasuna hobetzeko HMJPan aurreikusitako lehen neurria da. Lehenetsuneko jotako neurria da, eta ardatz hauek ditu: oinezkoentzat leku gehiago irabaztea, zirkulaziorako bide bat kentzea espaloi gehiago izateko, semaforoak kentzea eta oinezkoentzako desplazamenduak arintzea.</p> <p>- Bizkaiko Foru Aldundiari eskaera egin diogu Basauri BizkaiBizi programari atxikitzeko. 2027ko urtarrilerako aurreikusi dute sartzeari, zerbitzuaren lizitazio berriarekin.</p>
<p>4.16.- Hiri-baratzeak. Hiri-baratzeak sustatzea, herritarrek beren elikagaiak ekoizteko nekazaritza ekologikoko tekniken bidez; horrela, ekonomia soziala eta tokiko produktuak saltokietan sartzeari sustatzen da.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>- 50-55 hiri-baratze eraikitze proiektua.</p> <p>Diseinu-proiektua orain idatziko duen adjudikatu da, aurrekontua 37.056,25 euro izanik, eta 2026ko urtarrilerako amaitzea aurreikusi da.</p> <p>Gauzatezko obra 2026ko bigarren seihilekorako aurreikusi da. 400.000 euroko diru-partida jaso da 2026ko udal-aurrekontuan.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.17.- Energia-efizientzia udal-ekipamenduetan eta espazio publikoan. Energia-efizientzia hobetzea udal-eraikin eta -ekipamenduetan. Argiteria berritzen jarraitzea energia-efizientziaren irizpideei jarraituz (LED argiak).</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Basauriko Energia Jarduketan Plan Orokorra (EJPO) onetsi da, 17.097 €-ko inbertsioarekin - Eraikin publikoetako energia-auditoretza guztiak idatzi dira, 18.105 €-ko inbertsioarekin - Energia-efizientzia etengabe hobetzeko planaren barruan, Uribarri, Artunduaga eta Kareaga auzoetako eta Basozelaiko zati bateko argiteria berritu da eta LED motako argiak ipini dira, kostua 688.105,00 € izanik, eta urtean 250.000 kWh aurreztuko dira, batez beste
<p>4.18.- Energiaren autokontsumo partekatuari eta energia-subirotasunari laguntzea. Energia berriztagarrien erabilera eta autokontsumo partekatua sustatzea energia-komunitateak martxan jartzen lagunduta, pobrezia energetikoko egoerak ezabatuko dituen energia-eredu inklusiboagoa lortzeko.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-eraikinetan autokontsumorako panel fotovoltaikoak instalatzea, udal-erabilerarako eta energia-komunitatea sortzeko: <p><u>Arizko Ikastola:</u> gauzatzen ari da, eta 79.439 €-ko inbertsioa egingo da</p> <p><u>Basozelai-Gaztelu Ikastetxea:</u> 2026rako aurreikusi da</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.19.- Klima-aldaketaren eraginak prebenitu eta murriztea. Ildo horretako neurriak garatzea, hala nola ibai-espazioak birnaturalizatzea, fatxada edo/eta estalki berdeak jartzea udaleraikinetan, eta babesleku klimatikoak sortzea. Udalerriko ekosistema naturalak babestu eta handitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>- Basauriko udalerria klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko 2021eko Planean zenbait ekintza jasotzen dira; hona hemen ekintza horiek (planaren arabera zenbakituta):</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Espezie inbaditzaileak desagerraraztea eta bertako zuhaitzak landatzea Nerbioi ibaiertzean (*2.1.2); ekintzak 2023ko azaroan eta 2024ko ekainean egin ziren. Inbertsioa: 13.178 €, 2022ko parte-hartze bidezko aurrekontuetan (40.000 €) garaile izandako basoberritze-proiektuari dagozkionak. 2. Hiri-eremuak basoberritzea; inbertsioa: 23.609 €, 2022ko parte-hartze bidezko bidezko aurrekontuetan (40.000 €) garaile izandako basoberritze-proiektuari dagozkionak. 3. Ikastetxeetan 200 haritz landatzea (*2.1.4), Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. 4. Iruaretzetan baso esperimental autoktono jangarri sintropiko bat diseinatzea eta landatzea (*2.1.1), eta permakultura ezagutaratzeko eta horri buruzko sentsibilizazioko tailerrak egitea; inbertsioa: guztira 25.000 €, 2024ko parte-hartze bidezko aurrekontuetan (25.000 €) garaile izandako baso autoktono bat sortzeko proiektuari dagozkionak.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.19.- Klima-aldaketaren eraginak prebenitu eta murriztea. Ildo horretako neurriak garatzea, hala nola ibai-espazioak birnaturalizatzea, fatxada edo/eta estalki berdeak jartzea udal-eraikinetan, eta babesleku klimatikoak sortzea. Udalerriko ekosistema naturalak babestu eta handitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>5. Babesleku klimatikoak sortzea (*2.1.4) -Eserleku-eremua estaltzea Solobarrian: 2025eko ekaina. Inbertsioa: 73.810 € -Basozelai parkeko estalkia: obrak 2025eko azaroan hasi dira. Inbertsioa: 619.520 €</p> <p>6. Bidegorri berriak (*2.1.6) -Bidegorria La Basconiatik Bilbora, Arratiako tranbia zaharraren bidetik: 2025eko martxoan -La Basconia-Pozokoetxe bidegorria: 2026rako aurreikusi da</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.20.- Ekonomia zirkularraren garapena. Murrizteko, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berrerozteko 4R deitutako estrategia bultzatzea. Hondakinak biltzeko sistema berriz diseinatzea, birziklatze-tasak eta ingurumen-kontzientzia handitzeko.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gai organikoen edukiontzia itxi, eta herriko etxe guztietara frakzio organikoaren edukiontzia (marroia, FRO) irekitzeko txartelak bidali dira 2025eko urrian, inbertsioa 20.183,00 € izanik. 2. Etxerako eta zarama-sortzaile handientzako poltsa konpostagarrien hornidura eta banaketa, frakzio organikoaren edukiontzia erabil dezaten sustatzeko, inbertsioa 50.062 € izanik. 3. Birziklatzeari, hondakinak murrizteari eta "Organikoa Bai" frakzio organikoaren edukiontzia ixteari buruzko sentsibilizazio-kanpaina, herritar guztiei zuzenduta; inbertsioa: 24.710 €. Kanpaina berezi bat egin dute saltokietan (ostalaritza eta elikagaiak), eta hilero poltsa konpostagarriak ematen zaizkie; hala, kanpainari atxikitako establezimenduak lehen 28 ziren eta orain 127 dira. 4. Etxerako 10 litroko poltsa organikoak banatzen dituzten 2 makina ipini dira, inbertsioa 17.714 € izanik. Ekintza horren helburua da gai garrantzitsuenetan birziklatze-tasak handitzea (2024an % 26,65 zen, eta 2030ean % 60ra iritsi nahi da, zarama sortzeagatiko ordainketa ezarri ostean).



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.20.- Ekonomia zirkularraren garapena. Murrizteko, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berrerosteko 4R deitutako estrategia bultzatzea. Hondakinak biltzeko sistema berriz diseinatzea, birziklatze-tasak eta ingurumen-kontzientzia handitzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>5. Amiantoaren inbentarioa: Oinarrizko eta aurretiazko faseak: 2025eko uztaila. Inbertsioa: 16.459,63 €.</p> <p>Ikuskapen zehatzen fasea (lehentasun handieneko 7 udal-eraikin): 2025eko iraila. Inbertsioa: 20.061,92 €.</p> <p>Beharrezkoak diren gainerako ikuskapen zehatzak (Udalaren 35 eraikin), eta lehentasunezko jasoaldien egutegia: 2026. Inbertsioa beharrezko jasoaldi kopuruaren arabera zehaztu behar da.</p>
<p>4.21.- Zarata arautzeko ordenantza berria. Zarata arautzeko ordenantza berri bat idaztea, kalitate akustikoko helburuak baino maila handiagoak jasaten dituzten herritarren ehunekoa murrizteko.</p>	GAUZATZEKE	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza hori geroratu egin da, Estatuko lege-aldaketan izandako atzerapenagatik; izan ere, gero autonomia-erkidegoetara eraman behar baita. Lege-aldaketa gauzatu arte itxaron behar da, gure ordenantza idazten hasi baino lehen. - Jarduera-eremu horretan bertan, 2025-2029 aldirako Zarataren aurkako Ekintza Plana onartu da, udalerrian hots-kutsaduraren ondorioak arintzeko. Plan horren helburua Basauriko kalitate akustikoa hobetzea da, bai zarata-mailak murriztuz, bai eremu lasaiak zainduz. Horretarako, zarata-mapan aztertutako zarata-fokuak eta basauriarrengan eragozpenak sortzen dituzten beste batzuk hartzen ditu kontuan.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.22.- Airearen kalitatea neurtzea. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, airearen kalitatea neurtzeko eta diagnostikatzeko sistema bat ezartzea Basaurin. Sistema horren datuak denbora errealean zabalduko dira, herritarrek horien berri izan dezaten.</p>	GAUZATZEN	<p>-Transposizio-prozesuan dagoen Airearen Kalitateari buruzko Europako 2024/2881 Zuzentarau berria jarraibideak ezartzen dira, airearen kalitateari buruzko informazioa herritarren eskura egon dadin. Eusko Jaurlaritzak airearen kalitatea aztertzeko Bizkotxalden eta San Migelen dituen estazioetako datuak denbora errealean herrian zehar dauden panel digitalen bidez transmititzeko modua diseinatzen ari dira.</p>
<p>4.23.- Gure maskoten zaintza arduratsua. Sentsibilizazio-kanpainak egiten jarraitzea Animaliak Babesteko Ordenantza eta jabeen eskubideak eta betebeharrak gogorarazteko eta bizilagunen eta maskoten arteko bizikidetzaren hobetzeko. 24 orduz irekita dauden txakurren aisialdirako guneak mantentzea. Osasun Ataletik animaliak babesteko elkarteekin eta boluntarioekin elkarlanean jarraituko dugu, katuen koloniak zaintzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>-Jabeei eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina, 2023 eta 2024an. 2026ko lehen seihilekorako beste kanpaina bat aurreikusitako da.</p> <p>- Herriko katu-koloniak zaindu eta hobetu dira.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.24.- Udaltzaingoa gertuago. Udaltzaingoko Bulego Mugikorra sortzea, auzo bakoitza aldizka bisitatuko duena arreta hurbilagoa emateko babesarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten gaietan. Lan-mahaiak eratzea elkarte, kolektibo eta enpresekin, zuzenean ezagutzeko herritarrek segurtasun-arloan dituzten kezak, eta horiei batera erantzuteko. Informazio-hitzaldiak antolatzea arrisku jakin batzuei buruz, ziberdelinkuentziarekin lotutakoak barne.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 2024ko apirilean, Poliziaren Bulego Mugikorra sortu zen. - Lapurreten eta iruzurren prebentzioari buruzko hitzaldiak antolatu dira adinekoentzat, zenbait udal-zentrotan. - Prebentzioko zaintza-lanak saltokietan; batik bat, botika eta estankoetan. - Basauriko Udaltzaingoak astero egiten ditu koordinazio-bilerak Ertzaintzarekin eta Etxebarri eta Galdakaoko udaltzaingoekin. Halaber, astero partekatzen da informazioa Bilboko Udaltzaingoarekin, hiriburutik hurbil gaudelako eta delinkuentzia-profil jakin batzuk antzekoak direlako.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.25.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babestea.</p> <p>Indarkeriaren biktima diren emakumeak behar bezala babesten direla bermatzea honakoen bidez: EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) sistema bultzatzea, Euskal Poliziaren espediente bakarra indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, eta erakundearteko jarduera-protokoloa benetan ezartzea horrelako kasuetan, sistema osatzen duten eragile guztien parte-hartzea eta koordinazioa bermatuz (Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Ertzaintza, Osakidetza...)</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - EBA sistema aplikatu, eta espedienteak aplikazioaren bidez kudeatzen dira; sistema hori erabiltzen dute Basauriko Udaltzaingoa egindako jarduketei buruzko informazioa titularrei bidaltzeko. Basauriko udaltzainburuak tresna horren erabilerari buruzko prestakuntza ematen die Arkauteko Akademiari oinarrizko agenteei eta udaltzaingo guztietako agente lehenei. - Basauriko Udaltzaingoa, indarkeria matxistaren biktima batekin jarduten duenean, biktimak baimena emanez gero, Udalaren erakundearteko jarduera-protokoloa abiarazten du eta Gizarte Zerbitzuei ematen die horren berri. - Gizarte Politikako Arloan erakundearteko jarduera-protokoloa dinamizatzen, bultzatzen eta garatzen dute, eta inplikaturako eragile guztien prestakuntza, koordinazioa eta baterako lana ahalbidetzen dute, kasuan kasu diziplina anitzeko esku-hartzea bermatzearen eta arreta etengabe hobetzen laguntzearen.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>4.26.- Bide-segurtasun handiagoa. Trafiko-istripuen prebentzioa bultzatzea, jokabide desegokiak kontrolatzeko aldian behingo kanpainen bidez eta bide-segurtasunaren arloan ikastetxeetan, enpresetan eta interes sozialeko beste kolektibo batzuekin egitekoak diren prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintzen bidez. San Migel futbol-zelaiaren ondoko bidegurutzea hobetzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>-Bide-segurtasuneko jarraibide berriak aztertzen eta haurrei zuzendutako bide-heziketako kanpaina bat prestatzen ari dira, Udaltzaingoarekin elkarlanean.</p> <p>-San Migel futbol-zelaiaren ondoko bidegurutzea hobetzeko lanak amaitu dituzte.</p>



5. ardatza- Basauri KULTURAREKIN, KIROLAREKIN ETA EUSKARAREKIN

JARDUERAK

- 5.1.- Kultura-jarduera gehiago eta kultura-eskaintzaren zabalkunde handiagoa.
- 5.2.- Kultura-ekipamendu berria La Basconian.
- 5.3.- Kultura-ekipamenduen erabilera optimizatzea.
- 5.4.- Musika Eskolaren eskaintza zabaltzea.
- 5.5.- Gure jai tradizionalak sustatzea.
- 5.6.- Basauri "Kirolaren Europako Hiria 2024".
- 5.7.- Udaleko kirol-ekipamenduak eta -espazioak hobetzea.
- 5.8.- Basauri Sano Bizi.
- 5.9.- Lapatza kros-zirkuitua.
- 5.10.- Berdintasuna kirolean.
- 5.11.- Euskara Sustatzeko Plana.
- 5.12.- Euskara sustatzea Basauriko bizitza sozialean.
- 5.13.- Herritarrei lehenengo hitza euskaraz.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.1.- Kultura-jarduera gehiago eta kultura-eskaintzaren zabalkunde handiagoa. Kultur Etxeen eta auzoko gizarte-zentroen jarduerak eta programazioa sustatzea eta hobetzea. Basauri Bizia aplikazioaren erabilera bultzatzea, Basaurin egiten diren kultura-jarduerak gehiago ezagut daitezzen.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udaberri Festa kultura-programa berria abian da, Gazteria Atalarekin elkarlanean garatutakoa. Maiatzeko azken asteburuan izaten da, eta, gazteentzako proposamen erakargarriak eskaintzeaz gain, kultura kalera ateratzea du xede, aire zabalean egoteko sasoi ezin hobea den aldetik. - Publiko gaztea erakartzeko jarduerak. Kontzertuak, abenduan: Maldita Nerea, Eñaut Elorrieta, Oxabi... - Publikoarekin interaktuatzeko jarduerak egin dituzte, zenbait ikuskizunetan. - Udaleku artistikoak abiarazi dituzte haur eta gazteei zuzendutako tailerretan, 2025eko uztailean. - Ikasketa-gelen, entsegu-gelen eta Basozelaiko Gizarte Etxearen ordutegiak zabaltzea (azken hori, jaiegunetan). - Ibaigane Kultur Etxeko hainbat gune berritu dituzte (ikasteko eta irakurtzeko gelak, areto nagusia).



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.1.- Kultura-jarduera gehiago eta kultura-eskaintzaren zabalkunde handiagoa. Kultur Etxeen eta auzoko gizarte-zentroyen jarduerak eta programazioa sustatzea eta hobetzea. Basauri Bizia aplikazioaren erabilera bultzatzea, Basaurin egiten diren kultura-jarduerak gehiago ezagut daitezzen.</p>	GAUZATZEN	<p>Irisgarritasuna hobetzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ilogailua ipini dute Ibaigane Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan, agertokira iristeko aukera bermatzearen. -Sistema berezi bat jarri dute Social Antzokian, entzumenean desgaitasuna edo zailtasuna dutenentzat. -Social Antzokian ikusmen-desgaitasuna dutenei zuzendutako errotulazioa jartzeko administrazio-izapideak hasi dituzte. Bi-hiru hilabeteko epean jarriko dutela aurreikusi da. -Ibaigane Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan gurpil-aulkia behar dutenentzako lekuak gordetzea.
<p>5.2.- Kultura-ekipamendu berria La Basconian. SEPESein (Estatuko Lurzoru Erakundea) batera, La Basconiako lantegi zaharra birgaitzea, etorkizunean kultura-ekipamendu gisa erabili ahal izateko.</p>	GAUZATZEN	<p>Udalak 220.825 euroko aurrekontu-kontsignazioa onetsi du La Basconia lantegien zaharberitze-proiektua idazteko. Lehen fase batean, Basauriko Udalak lantegiak eraberrituko ditu, eta egitura sendotu eta orubea zolatuko du, plaza publiko estalia sortzeko. Gero, analisi tekniko baten eta herritarrei zabalduko parte-hartze bidezko prozesu baten ondoren, zehaztu egingo dira eremu berrian garatuko diren jarduerak: kulturalak, artistikoak, etab.</p> <p>Lizitazio-prozesua abian dago, proiektua idazteko kontratua lehiaketa publiko bidez adjudikatzeke.</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.3.- Kultura-ekipamenduen erabilera optimizatzea. Tximeleta ludoteka beste leku batean kokatzea, zerbitzuaren espazioa eta kalitatea hobetzeko. Social Antzokia, kultur etxeak eta Taberna Nagusia bezalako ekipamenduak sustatzea erabili ohi ez dituzten biztanle-sektoreen artean.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Basauriko Tximeleta ludoteka Ibaigane Kultur Etxera lekualdatu dute. - Publizitate-euskarri berriak erabiltzen dituzte: pantaila digitalak Termibusen, presentzia Metroko euskarrietan eta pantaila digitala Ibaigane Kultur Etxean. - Metro Kultura programan parte hartzen dugu. Metro Bilbaorekin elkarlanean, Basauriko kultura-ekitaldien eta ekitaldi sozialen berri ematen dugu, agenda formatuan, metroko lineen hainbat puntutan. - Publizitate berezia Social Txiki ikuskizun-ziklorako. - Erakusketen promozio berezia, publizitate-kartel bateratu batean. 52 erakusketa egin dituzte 2025ean, San Migel, Kareaga, Pozokoetxe eta Arizko zentroetan. - Presentzia ikastetxeetan, haur-ikuskizunak sustatzeko. - Social Antzokiak Osakidetzaren Elkarlana Saria jaso du. - Social Antzokiaren 2025eko programazioaren barruan, 45 ikuskizun sartu dituzte, baita 20 lagapen eta alokairu ere, erakunde eta elkarteen jarduera propioak sustatzeko, gehi zinema-saioak.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.4.- Musika Eskolaren eskaintza zabaltzea. Musika Eskolaren prestakuntza-eskaintza hobetzea. Basauriarrei Musika Eskolara sartzeko lehentasuna ematea, eta, horretarako, barne-araudia aldatzea.</p>	GAUZATZEN	2024ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak musika-eskolak arautzeko beste dekretu bat argitaratu zuen eta, horren ondorioz, erregelamendu berri bat idazten ari dira, jarduera parametro berri horien arabera arautzeko. Aurreikusita dago 2026ko irailerako Musika Eskola kudeatzeko kontratuaren lizitazioa egitea, non jasoko baitira handitzeko proposamenak.
<p>5.5.- Gure jai tradizionalak sustatzea. Sanfaustoen jai-eredu tradizionalari ematen zaion laguntza indartzea, bai eta San Migel eta Basauriko gainerako auzoetako jaiei ere.</p>	GAUZATZEN	Herriko jai-eredua indartzen eta sustatzen jarraitzen dugu, elkarteek eta kolektiboek bultzatutako jaien aldeko apustua eginez, betiere Udalak diruz lagunduta, elkarlanean eta udal-azpiegiturak eskainita.
<p>5.6.- Basauri “Kirolaren Europako Hiria 2024”. Aitortza hori aprobetxatzea gure udalerriko kirol-jarduera indartzen jarraitzeko eta Basauri Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko kirol-erakusleihan kokatzeko.</p>	AMAITUTA	Basauri "Kirolaren Europako Hiria 2024" izan zen. ACES Europa erakundeak eman zuen izendapen hori eta, haren ondorioz, urtean zehar hainbat kirol-ekitaldi egin ziren herrian, hala nola Itzulia Women, Kirolaren Euskal Kongresua edo Basauri Kirol Sariak kirol-gala. Bruselan egoitza duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da ACES, Europako Batzordeak aintzatetsia.



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.7.- Udaleko kirol-ekipamenduak eta espazioak hobetzea. Udaleko kirol-espazioak handitzen eta hobetzen jarraitzea, bai Basauri Kirolakekoak, bai udalerriko beste alde batzuetan kokatuta daudenak, kirol-joera eta -praktika berriak txertatuz.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - Atletismo-pistako eserlekuak aldatu dituzte, baita futbol-zelaietan hondatuta zeuden eserlekuak ere - Artunduagako pabilioirako bideo-markagailu bat erosi dute - Artunduagako pabilioirako ate-sorta bat erosi dute, egonkorgailu eta guzti - Fokuen ordezkariak LED argiak jarri dituzte pilotalekuetan, eta, pixkanaka, instalazio osora zabalduko dituzte - Kanpoko igerilekuetako solariumean, haurrentzako jolas berriak ipini dituzte - Fitness-aretoko makina guztiak berrituko dituzte, 2026ko amaierarako - Atletismo-pista garbitu eta berriz margotuko dute, 2026ko amaierarako - Soloarteko eta San Migeleko futbol-zelaietan belarra aldatu dute eta ekipamendua erosi dute
<p>5.8.- Basauri Sano Bizi. Proiektua bultzatzen jarraitzea, kirol-jarduera eta bizi-ohitura osasungarriak adin guztietan sustatuz, adinekoei arreta berezia emanda.</p>	GAUZATZEN	<p>Asteroko irteeretan, batez bestean 25 ibiltarik parte hartzen dute. Gainera, padel eta beste kirol-diziplina batzuetako ikastaroak egiten ari dira, helduentzat</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.9.- Lapatza kros-zirkuitua. Lapatza kros zirkuitu egonkorra hobetzen eta bultzatzen jarraitzea, nazioarteko lehiaketak erakartzeko.</p>	GAUZATZEN	<p>Urtean behin, estatu-mailako ekitaldi bat egiten da, eta probintzia- edo erkidego-mailako beste batzuk ere bai.</p>
<p>5.10.- Berdintasuna kirolean. Adin guztietako kirolean berdintasuna bultzatzen jarraitzea, bereziki gure neskatoen kirol-jardueran arreta jarritz. Kirol egokitua babestea, pertsona guztiek kirola egiteko aukera berberak izan ditzaten.</p>	GAUZATZEN	<p>- Senior mailako emakumezkoen futbol-selektzioa sortu dute, eta Piru Gainza emakumezkoen I. Txapelketa egin dute.</p> <p>- Emakumeen nazioarteko kirol-ekitaldiak egin dituzte Basaurin, hala nola Itzulia Women 2024 edo esku-pilotako Emakume Master Cup txapelketako finalak.</p> <p>- Nazioarteko kirol-ekitaldi inklusiboak egin dituzte, eta lagundu dituzte bai diruz, bai logistikaren aldetik, hala nola Meeting Paralinpikoa edo kros-txapelketa nazionalak.</p>
<p>5.11.- Euskara Sustatzeko Plana. Euskara Sustatzeko Plana garatzea, udalerriko elkarte eta erakundeak inplikaturako dituen parte-hartze bidezko prozesu baten bidez.</p>	AMAITUTA	<p>-Basauriko Udaleko Euskararen Erabilera Plana onetsi zuten, 2024ko azaroan. Egun, plana garatzen ari dira, eta arlo bakoitzeko eta udal-erakunde autonomo bakoitzeko kudeaketa-planak egiten ari dira.</p>



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>5.12.- Euskara sustatzea Basauriko bizitza sozialean. Euskara herritarren artean sustatzeko jardueren garapena sendotzea urte osoan zehar, besteak beste honako hauen bitartez; “Basauritarrak” marka, “ariguneak” (euskaraz hitz egiteko guneak), BIKEE programa, euskararen erabilera kirol-munduan bultzatzeko, eta euskararen erabileraren sustapena gazteen aisialdi-jardueretan.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - 2024ko abenduan, Basauriko Udalak AROA plana onetsi zuen, basauriar guztiek euskara eguneroko bizitzaren esparru guztietan erabil dezaten sustatzeko; parte-hartze bidezko prozesu baten ondorio izan zen plana, eta norbanakoek, elkarteek, klubek, hezkuntza-komunitateak eta beste gizarte-eragile batzuek egindako ekarpenak bildu ziren. Egun, 2025eko kudeaketa-planaren bidez ari da garatzen. - “Euskara Integraziorako Giltza”. Euskadira iritsi berri diren haurrentzat euskarazko errefortzu-eskolen doako programa jarri dute abian, Gizarte Politika Atalarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean. - "Euskaraz barra-barra" marka ezagutarazten ari dira, herriko saltoki eta ostalarien artean: establezimenduan identifikazio-pegatina ikusten dutenek jakingo dute euskaraz egin dezaketela berba beti, nahiz eta parekoa gaztelaniaz aritu. Gaur egun, 30 establezimenduk baino gehiagok dute pegatina. - “Kirola Euskaraz”. Herriko kirol-elkarteekin lanean ari dira, kirolean euskararen erabilera sustatzeko.
<p>5.13.- Herritarrei lehenengo hitza euskaraz. Herritarrei euskarazko arreta ematea bultzatzea udal zerbitzuetan.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - “Eizu Euskaraz!” kanpaina. 2024ko ekainean hasi zen, eta jarraitua eta aldizkakoa da. Helburu bikoitza du: herritarrak udal-administrazioarekin euskaraz jardutera animatzea eta udal-langileek euskara lanean eta zerbitzuan erabil dezatela sustatzea.



6. ardatza- Udal MODERNO ETA IREKIA

JARDUERAK

- 6.1.- Herritarren parte-hartzea bultzatzea.
- 6.2.- Udalaren webgune berria.
- 6.3.- e-Administrazio inklusiboa bultzatzea.
- 6.4.- Udaleko politikak eta zerbitzuak ebaluatzea.
- 6.5.- Gardentasun Ataria eguneratzea.
- 6.6.- Konpromiso handiena integritatearekin.

GJHetarako EKARPENA



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>6.1.- Herritarren parte-hartzea bultzatzea. Udal-politika nagusien diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko prozesuak bultzatzea. “Haur Ekin” programa garatzea haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko. Udal-politiketan adinekoen parte-hartzea sustatzen jarraitzea. Parte-hartze bidezko aurrekontuak handitzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartze bidezko prozesuak aurrekontuetarako, 2024ko ekitaldian (herritarren 596 proposamen), 2025eko ekitaldian (658 proposamen) eta 2026ko ekitaldian (610 proposamen). - AuzoEgin ekimena abiarazi dugu, herriko auzo bakoitzaren eskaeretara gehiago hurbiltzen den parte-hartze bidezko prozesua. <p>2024an, proiektu pilotua egin genuen Ariz auzoan; guztira, 179 lagunek parte hartu zuten, eta 272 proposamen aurkeztu zituzten.</p> <p>-Ariz auzoan, auzotarrek aurkeztutako proposamen hauek gauzatu genituen: espaloiak konpontzea, zebra-bideak jaistea, topeak jartzea autoak espalaira igo ez daitezen Oleta kalean, zebra-bideak berriro pintatzea, Kantabria parkean mugikortasuna hobetzea, eserlekuak eta zarama-ontziak margotzea, Leon kalean beste eserleku bat ipintzea, eta Francisco Kortabarria kaleko oinezkoen pasabidea Oleta kalearekin bat egiten duen tokira eramatea.</p> <p>AuzoEgin ekimena 2+1+1+ urteko epean gauzatzeko kontratua adjudikatu dute, 2025ean. San Migelen burutu dute prozesua, eta 115 pertsonak 243 proposamen aurkeztu dituzte.</p> <p>Herrilantetako Udal Brigadak hobekuntza-lan hauek egin ditu, prozesuaren barruan: bideak asfaltatzea eta margotzea, irisgarritasuna eta oinezkoentzako ibilbideak, iturri berriak ipintzea, eta hiri-altzariak konpontzea eta egokitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2024ko otsailean, herritarrek Pozokoetxeko parkearen diseinua aukeratzeko parte-hartze bidezko prozesua egin genuen. 973 herritarrek hartu zuten parte.

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>6.2.- Udalaren webgune berria. Udalaren webgunea berritzea, udal zerbitzu eta baliabideetara modu erraz eta intuitiboagoan sartzen laguntzeko.</p>	<p>AMAITUTA</p>	<p>2023ko abenduan jarri zuten martxan webgune berria.</p>
<p>6.3.- e-Administrazio inklusiboa bultzatzea. 24/365 motako udala bultzatzen jarraitzea, zerbitzu berriak eta izapide digital errazagoak eta intuitiboagoak emango dituenak. “Laguntza digitaleko gune” bat sortzea, teknologia horiek gutxien ezagutzen dituzten pertsoneri zuzenduta. Edonola ere, udal-zerbitzuetan, kasu guztietan, aurrez aurreko arreta bermatzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>Laguntza Digitaleko Gunea (LDG) Hasierako azterketa-fasean dago. Bilboko Laguntza Gune Digitalera bisita egin zuten, 2024ko ekainean. Aztertzen ari diren ereduak: laguntza eta prestakuntza emateko gunea (batez ere, adinekoei, emakumei eta kolektibo zaurgarrii zuzendua). Laguntza gizarte-langileek eta hezitzaileek ematea. Hurrengo urratsa da alde zuzenetik lizenperen baimen-erregistroa ezartzea HAZen ziurtagiria lortzeko, LDGAN laguntza jaso aurretik.</p>
<p>6.4.- Udal politikak eta zerbitzuak ebaluatzea. Hiri Behatokiaren bitartez, basauriarrek udal-zerbitzuei buruz duten gogobetetasuna aztertzen jarraitzea. Udaleko planetan hartutako konpromisoen betetze-maila ebaluatzea eta emaitzak argitaratzea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<p>Udalak Hiri Behatokia egiten du 2013. urteaz geroztik, herritarrek udal-errealitateari buruz duten iritzia ezagutzeko. Basauriko Udalaren beharretik sortu zen, udalerriko errealitatea eta udal-zerbitzuen balorazioa ezagutzeko, ikerketa eta datu-analisi bidez. Telefono bidezko inkestaren metodologia kuantitatiboa eta teknika erabiltzen dituzte.</p> <p>Hiri Behatokiaren inkestak egin dituzte, 2023ko eta 2024ko abenduan.</p>

JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>6.5.- Gardentasun Ataria eguneratzea. Udaleko Gardentasun Ataria eguneratzea, informazio-eduki berriak sartuz eta herritarrentzat ulergarriagoak diren edukiak sortuz.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> - 2025eko berrikuntzak Gardentasuna gobernu-organoetan -Informazio-batzordeetako 41 akta -Kontseilu errektoreen 13 akta -Bozeramaileen Batzordearen 9 akta -Bidebiren Kontseilu Errektorearen 1 akta -Kontratazio mahaien 9 akta -Osoko bilkuren 7 akta -Informazio publikoa eskuratzeko 4 eskaera ebatzi dituzte
<p>6.6.- Konpromisorik handiena integritatearekin. Egungo Jokabide Kodea eguneratzea eta handitzea (kode horretan ezartzen dira Udaleko langile publikoen, zuzendari-kargudunen eta hautetsien betebeharrak, erantzukizunak eta bateraezintasunak). Kodearen aplikazioa bermatzeko behar diren barne-mekanismoak abiaraztea.</p>	GAUZATZEN	<ul style="list-style-type: none"> -Jokabide Kodea argitaratu dute, eta udalkide guztiak atxiki zaizkio (Gardentasun Araudiaren 21. artikulua). https://www.basauri.eus/eu/oinarrizko-web-orria/jokaera-kodea - Iruzzurren Aurkako Plana. Webgunean argitaratu dute: https://www.basauri.eus/eu/gardentasuneko-adierazlea/1510-iruzurraren-aurkako-neurrien-plana - Salaketa-kanala (2025eko urrian jarri dute abian). https://www.basauri.eus/eu/baliabidea/iruzurraren-aurkako-salaketen-kanala



JARDUERA	JARDUERAREN EGOERA	JARDUERAREN EGOERA ETA AURRERAPENAK
<p>6.6.- Konpromisorik handiena integritatearekin. Egungo Jokabide Kodea eguneratzea eta handitzea (kode horretan ezartzen dira Udaleko langile publikoen, zuzendari-kargudunen eta hautetsien betebeharrak, erantzukizunak eta bateraezintasunak). Kodearen aplikazioa bermatzeko behar diren barne-mekanismoak abiaraztea.</p>	<p>GAUZATZEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Goi-karguen ondasunen eta jardueren erregistroa, Gardentasun Atariko 1.4.5 itema (https://www.basauri.eus/eu/gardentasuneko-adierazlea/145-goi-karguen-ondasunen-eta-jardueren-erregistroa) - Bateragarritasuna baimentzeari edo aitortzeari buruzko ebazpenak. Gardentasun Atariko 1.2.8 itema - Goi-karguek kargua uztean jarduera pribatuetan aritzea baimentzen duten ebazpenak. Gardentasun Atariko 1.4.6. itema



AGINTALDI PLANA 2023-2027

JARRAIPEN-TXOSTENA

